ayuntamiento de lasarte-oriako udala

# international Student identity Card

Beherapenak eskaintzen dituzte mundu osoko museoetan, galerietan, kultura-etxeetan eta leku historikoetan sartzeko. Hegazkin, tren, autobus eta itsasontzien lineekin, telekomunikazioko konpainiekin, tokian tokiko salerosleekin eta zerbitzu-hornitzaileekin egindako hitzarmenen oinarria da.

**BALDINTZAK**

***ESTUDIANTE IZATEA***

Instituzio ezagutu batean goi-mailako hezkuntzan (unibertsitatean edo unibertsitateko eskolan) matrikulaturiko eta denbora osoko estudiante egiaztatu guztiak. Hau da, estudianteek gradua, diploma edo goi-mailako ikasketen ziurtagiria eskuratzeko ikasmaila batean inskribaturik egon behar dute, edo unibertsitatean matrikulaturik.

Hizkuntzen ikasleak (ingelesa, frantsesa, alemana, euskara¼), Hizkuntzen Eskola Ofizialean edota euskaltegi publiko edo homologatuetan matrikulatuak.

Udaletako edo ofizialki ezaguturiko beste ikastegi homologatu batzuetako ikasleak; esate baterako: musikako ikasketak, lanbiderako trebatzeko ikasketak.

Bigarren hezkuntzan denbora osoz matrikulaturiko eta 12 urtetik gorako estudianteak.

Ez dago adinaren goiko mugarik ISIC txartela eskuratzeko. Baldin eskatzaileak betetzen baditu hautagaitasunaren baldintzak eta frogatzen badu denbora osoko estudiantea dela, ISIC txartela emateko obligazioa dago. Hala ere, adin handiko eskatzaileak ohartarazi behar dira beherapenen hornitzaile batzuek goiko adin-muga bat jartzen dutela beherapen aplikatzeko. Esate baterako, aire-linea askok ez diete beren hegaldietan beherapenik eskaintzen adin jakin batetik gorako estudianteei.

**ESKABIDEA**

Agiri hauek aurkeztu behar dituzu:
- Nortasunaren agiria edo pasaportea.
- Ikastegiaren ziurtagiria edo unibertsitate bateko edo unibertsitateko eskola bateko nortasun-txartela, data egokia badauka eta estudiantea dela adierazten badu.
- Txartelerako moduko argazki bat.
- 6 euros. Balio-aldia 16 hilabetekoa du.

Non eska daitekeen: **Lasarte-Oriako Udalaren Gazteak Informatzeko Bulegoa.**

Proporcionan descuentos en la entrada a museos, galerías, centros culturales y lugares históricos en todo el mundo. Es la base de acuerdos con líneas aéreas, de ferrocarril, de autobuses y de navegación, compañías de telecomunicaciones, comercios locales y proveedores de servicios.

**REQUISITOS**

***SER ESTUDIANTES***

Todos los estudiantes a tiempo completo acreditados matriculados en educación superior (universidad o escuela universitaria) en una institución reconocida. Es decir, los estudiantes deben estar inscritos en un curso para la obtención de un grado, diploma o certificado de estudios superiores, o estudiantes matriculados en Universidades.

Estudiantes de idiomas (inglés, francés, alemán, euskera...) matriculados en la Escuela Oficial de Idiomas o en Euskaltegis públicos u homologados.

Estudiantes en otros centros homologados, municipales u oficialmente reconocidos, por ejemplo: estudios de música, capacitaciones profesionales.

Estudiantes matriculados en educación secundaria a tiempo completo y edad superior a 12 años.

No existe límite superior de edad para obtener el ISIC. Si el solicitante cumple los requisitos de elegibilidad y prueba su estado de estudiante a tiempo completo hay obligación de emitir el ISIC. Sin embargo hay que indicar a los solicitantes de más edad que algunos proveedores de descuentos tienen un límite superior para aplicar el descuento. En concreto muchas líneas aéreas no ofrecen descuentos en sus vuelos a estudiantes por encima de determinada edad.

**SOLICITUD**

Tienes que presentar:
-DNI o pasaporte.
-Certificado del centro de estudios o carnet de identidad de una universidad o escuela universitaria si tiene la fecha adecuada e indica el estado de estudiante.
-Una fotografía tamaño carnet.
-6 euros. Su validez es de 16 meses.

Lugares donde se puede solicitar: **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria.**

# enplegua empleo

## Lan bila zabiltza?

Goiko galderari baietz erantzun badiozu, hemen duzu lantokia lortzeko aukera on bat. Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoan inon aurki dezakezun enplegu-eskaintzarik handiena dugu. Edozer bilatzen duzula ere, zure prestakuntza eta trebakuntza edozein delarik ere, guk lagun diezazukegu lantokia aurkitzen. Enplegu pribatua zein enplegu publikoa, prestakuntza eta esperientzia handiko lanpostuak nahiz prestakuntza beharrik gabeko lanak. Seguru lagun diezazukegula. Horretarako, nahikoa duzu gure Bulegora etortzea eta kontsultatzea eskueran jarriko dizkizugun dosierrak, zabalak eta astero berritzen ditugunak. Eta, noski, zerbitzu hori guztiz dohainik da. Ez, gero, aukera galdu!

## ¿Buscas trabajo?

Si has respondido sí a la pregunta de arriba, aquí tienes una buena oportunidad para conseguirlo. En la Oficina Municipal de Información Juvenil tenemos la mayor oferta de empleo que puedes encontrar. Busques lo que busques, sea cual sea tu formación y preparación, nosotros podemos ayudarte a encontrar empleo. Desde empleo privado a empleo público, desde puestos de alta cualificación y experiencia hasta trabajos sin cualificar. Seguro que podemos ayudarte. Lo único que debes hacer, es pasarte por nuestra Oficina y consulta los amplios dossieres que ponemos a tu disposición y que renovamos semanalmente. Y, por supuesto, este es un servicio absolutamente gratuito. No te lo pierdas.

# sarea red

## Gazteentzako Dokumentazioren eta Informazioaren Euskadiko Sarea

**Lasarte-Oriako Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoa, Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen** barruan dagoen doako zerbitzu publikoa da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko sarea osatzen duten berrogeita hamar zerbitzu inguruen zati dena.
Gure helburua, gazteentzako interesgarri izan daitekeen eta lanarekin, heziketarekin, aisialdiarekin, astialdiarekin eta abarrekin zerikusia duen informazio oro gazteengana hurbilaraztea da.
Informazio hori, Kulturetxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan jendea zuzenean atendituz, telefonoz eta posta elektroniko bidez zabaltzen da. Horrez gain, norberak kontsultak egiteko zerbitzua ere badu, gazteei gehien interesatzen zaizkien gaiak lantzeko aukera ematen duena.
Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen web gunea honako hau da: www.gazteinformazioa.net

## Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi

La **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria** es un servicio público y gratuito que pertenece a la **Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi** y que, en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, forma parte de los, aproximadamente, cincuenta servicios que completan la red en la Comunidad Autónoma Vasca.
Nuestra finalidad es acercar a las personas jóvenes toda aquella información que pueda ser de su interés y que tenga que ver con el mundo del trabajo, la educación, el ocio, tiempo libre...
Dicha información se difunde mediante la atención directa al público en la oficina situada en la segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona, y a través de vía telefónica o por correo electrónico. Además, dispone de un servicio de autoconsulta en el que las personas jóvenes pueden trabajar directamente los temas que más les interesan.
El sitio web de la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi es www.gazteinformazioa.net

gazte informazioa

# ordutegiak horarios

gazteen informaziorako udal bulegoa
oficina municipal de información juvenil

Astelehenetik ostiralera Lunes a viernes 11:00-13:00/17:00-20:00


**Casa de Cultura MANUEL LEKUONA Kultur Etxea**
Geltoki 18 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 61 81/91 - Fax: 943 37 61 92
gazteinfo@lasarte-oria.org
www.lasarte-oria.org



gazte informazioa
orrigorri
no. 86 zk.
2005 noviembre/diciembre azaroa/abendua





CASA DE CULTURA MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIAKO UDALA
lasarte-oria
www.lasarte-oria.org

casa de cultura manuel lekuona kultur etxea

Ayuntamiento de Lasarte-Oria Udala

# praktikak practicas

## PRAKTIGES-ONLINE: IKASLEEN PRAKTIKAK ENPRESETAN
## PRAKTIGES-ONLINE: PRÁCTICAS DE UNIVERSITARIOS EN EMPRESAS

**Euskal Herriko Unibertsitatea**
www.praktiges-online.ehu.es

**Nori zuzendua dago sistema?**
* UPV/EHUko ikasteei enpresetan praktikak egin ditzaten.
* Praktikak eskaini nahi dituzten enpresa, instituzio eta erakunde publikoei.

**Helburuak**
* Unibertsitate praktikak kudeatzeko mekanismo arin eta berritzailea sortzea.
* Prozedurak estandarizatzea eta enpresetan praktikak egitea erraztea.
* Bermatzea datu multzoen konfidentzialtasuna, osotasuna eta trinkotasuna.
* Enpresetako praktiken eskaintzaren eta eskariaren analisia erraztea eta etengabe hobetzen joatea.
* Praktikak eskatzen dituzten ikasleei eta praktikak eskaintzen dituzten enpresei lehenago erantzutea.

**Web sistema**
Unibertsitarioak eta enpresak harremanetan jartzeko sistema laguntza.

**ZER INFORMAZIO AURKITUKO DUZU PRAKTIGES ONLINE-EN? PRAKTIGES-EN EGITURA ETA ERRAZTASUNAK**

Ikasle modulua: Modulu horretan ikasleek enpresetan praktikak burutzeko egin beharreko guztia egin ahal izango dute. Eskaintzen dituen zerbitzuak honako hauek dira, besteak beste: Curriculum Vitae osotua sartzea, enpresetan eskaintzen diren praktiken berri ematea zehatz-mehatz praktikak burutzeko eskaria zuzenean egitea, dagokion zentroko praktika programaren informazioa ematea eta praktikak aukeratzen laguntzea.

Enpresa modulua: Modulu horretan enpresek haien instalazioetan unibertsitate ikasleentzako praktika programa martxan jartzeko egin beharreko kudeaketa lan guztia egin ahal izango dute. Zentzu honetan, modulu horren funtzio nagusienak honako hauek dira: praktikak zentro egokiei eskaintzea, praktikak aukeratu dituzten ikasleen Curriculum Vitae-a eskura izatea eta unibertsitate zentroetako praktika programen informazioa ematea.

**Universidad País Vasco**
www.praktiges-online.ehu.es

**¿A quién va dirigido el sistema?**
* A estudiantes de la UPV/EHU para facilitar la realización de prácticas en empresas.
* A empresas, instituciones y organismos públicos que deseen ofertar prácticas.

**Objetivos**
* Generar un mecanismo ágil y novedoso para la gestión de las prácticas universitarias.
* Estandarizar los procedimientos y facilitar las prácticas universitarias en empresas.
* Garantizar la confidencialidad integridad y consistencia del conjunto de datos.
* Facilitar el análisis y desarrollar una mejora continua de la oferta y la demanda de prácticas en empresas.
* Acortar los tiempos de respuesta a los alumnos que solicitan prácticas y las empresas que las ofertan.

**Un sistema Web**
Un sistema que ayudará a universitarios y empresas a entrar en contacto.

**¿QUE INFORMACIÓN ENCONTRARÁ EN PRAKTIGES? ESTRUCTURA Y FACILIDADES DEL PROGRAMA PRAKTIGES**

Módulo Alumno: En este Módulo los alumnos podrán llevar a cabo todas las gestiones oportunas para realizar prácticas en empresas. Los servicios ofrecidos van desde la introducción de un completo Curriculum Vitae, hasta el conocimiento en detalle de cada una de las prácticas ofrecidas por las empresas, pasando por utilidades vinculadas a la directa solicitud de realizar prácticas, a información sobre el programa de prácticas del centro correspondiente y srvicios que ayudan a elección de prácticas.

Módulo Empresa: En este módulo el tejido empresarial podrá realizar las gestiones necesarias para poner en marcha el programa de prácticas de alumnos universitarios en sus instalaciones. Las principales funciones de este módulo son la oferta de prácticas para los centros más adecuados, acceso al Curriculum Vitae de los estudiantes que hayan seleccionado sus prácticas, así como una amplia información sobre los programas de prácticas de los centros universitarios.

# bekak becas

## ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO BEKEAK. ARGO PROIEKTUA
## BECAS PARA REALIZAR PRÁCTICAS EN EMPRESAS. PROYECTO ARGO

**Fundación General de la Universidad de Salamanca**
Hospedería del Colegio Fonseca
Fonseca, 2
37002 Salamanca
Telefonoa: 923 294772
Faxa: 923 294702

**Deialdiaren egilea:**
Salamancako Unibertsitateko Fundazio Orokorra, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, Europar Batasuneko Leonardo Da Vinci Programa.

**Baldintzak:**
Argo proiektuan parte hartu ahal izateko, Espainiako edozein unibertsitate publiko zein pribatuko tituludun izan behar da. Horrez gain, ondoko baldintzak bete behar dira:
* 1973ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoa izatea (egun hori barne).
* Unibertsitateko titulua 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratuta izatea (egun hori barne).
* Titulazioak espainiako Unibertsitate Publiko zein Pribatuetan eskaintzen diren Titulazioen Katalogo Ofizialean egon behar du.
* Eskatzaileak, ikasketak amaitu ondoren, ezin du bere unibertsitate-titulazioarekin zerikusia duen lan-esperientziarik izan.
* Mugikortasunerako Leonardo da Vinci Europar Programak finantzaturiko bekarik jasotakoa ez izatea.

**Edukia:**
Argo Proiektua, Mugikortasunerako Leonardo Da Vinci Europar Programaren barruan dago eta Europako enpresetasn hezkuntza-praktikak egiteko aukera ematea du xede.
Espainiako unibertsitaste publiko zein pribatuetako tituludunentzako 800 beka daude eskuragarri. bekek 6 hilabeteko iraupena dute batez beste.
Beka horietako bat eskatzeko, interesdunek behean adierazten den web orrian curriculum vitae sartu behar dute.

**Epea:**
2005-12-31

**Fundación General de la Universidad de Salamanca**
Hospedería del Colegio Fonseca
Fonseca, 2
37002 Salamanca
Tfno.: 923 294772
Fax: 923 294702

**Convoca:**
Fundación General de la Universidad de Salamanca, Ministerio de Educación y Ciencia , Programa Leonardo Da Vinci de la Unión Europea.

**Requisitos:**
Para participar en el Proyecto Argo, tienes que ser titulado universitario de cualquier universidad española pública o privada y cumplir los siguientes requisitos.

**Requisitos:**
* Haber nacido a partir del 1 de enero de 1973 (inclusive).
* Haber obtenido el título universitario a partir del 1 de enero de 1998 (inclusive).
* La titulación debe estar dentro del Catálogo Oficial de titulaciones impartidas en las Universidades Públicas o Privadas españolas.
* No tener experiencia laboral previa relacionada con tu titulación universitaria, después de finalizados tus estudios.
* No haber disfrutado con anterioridad de una beca financiada por el Programa Europeo de Movilidad Leonardo da Vinci.

**Contenido:**
El Proyecto Argo, desarrollado en el marco del Programa Europeo de Movilidad Leonardo da Vinci, tiene como objetivo facilitar la realización de prácticas formativas en empresas europeas.
Hay 800 becas disponibles destinadas a los titulados universitarios de cualquier universidad española pública o privada, con una duración media de 6 meses.
Para solicitar una de estas becas la persona interesada deberá registrar el curriculum vitae en la página web indicada.

**Plazo:**
31-12-2005

# bekak becas

## AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN GAZTELANIA LEKTORE GISA ARITZEKO BEKAK
## BECAS PARA LECTORES DE ESPAÑOL EN ESTADOS UNIDOS

**Fulbright Batzordea**
Espainaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Kultura, Hezkuntza eta Zientzia-trukearen aldeko Batzordea.
Paseo General Martínez Campos, 24
28010 Madril
Telefonoa: 91 3191126
Faxa: 91 3085704 / 91 7022185

**Deialdiaren egilea:**
Fulbright Batzordea.

**Baldintzak:**
- Espainiako nazionalitatea izatea edo Europako Batasuneko beste herrialde bateko nazionalitatea izan eta Espainian bizitzea.
- Filologia espainiarreko edo ingeleseko lizentziatu izatea, edo beste espezializate bateko lizentziatu izatea, baina hizkuntzen irakaskuntzan esperientzia frogatuz gero.
- Ingeles-maila ona.

**Iraupena:**
2006ko abuztutik 2007ko maiatzera arte.

**Diru-kopurua:**
4.000,00 $ US gehi unibertsitate bakoitzaren eskaintza; gaixotasun-asegurua eta istripu-asegurua.

**Edukia:**
Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitateetan gaztelania irakastea eta aldi berean, bizpahiru irakasgai ikastea, gehienetan graduondoko mailakoa ez direnak.
Bekadunen zereginek ondoko funtzioak barne hartzen dituzte:
- Elkarrizketa-taldeetako tutoreak.
- Hizkuntza-laborategietako monitoreak.
- Ikasketa-taldeetako irakasleak.
- Ikasketaz kanpoko jardueren koordinatzaileak.
- Irakasgai baten edo biren arduradunak.
- Aukera askeko bi irakasgai ikasi behar dituzten ikasleak.

**Epea:**
2005-11-11

**Comisión Fulbright**
Comisión de Intercambio Cultural, Educativo y Científico entre España y los Estados Unidos de América.
Pº General Martínez Campos, 24
28010 Madrid
Tel.: 91 3191126
Fax: 91 3085704 / 7022185

**Convoca:**
Comisión Fulbright.

**Requisitos:**
- Nacionalidad española o de otro país de la Unión Europea y ser residente en España.
- Ser licenciado en filología española o inglesa o en otra especialidad siempre que demuestre experiencia en la enseñanza de idiomas.
- Buen nivel de inglés.

**Duración:**
Desde agosto de 2006 hasta mayo de 2007.

**Dotación:**
4.000,00 $ US más la oferta concreta de cada universidad; seguro de enfermedad y accidente.

**Contenido:**
Enseñar español en una universidad o "college" de Estados Unidos, a la vez que se estudian dos ó tres asignaturas, en la mayoría de los casos no a nivel de post-grado.
Las obligaciones de los becarios incluirán las siguiente funciones:
- Tutores de grupos de conversación
- Monitores en laboratorios de lengua
- Profesores de grupos de estudios.
- Coordinadores de actividades extraacadémicas.
- Encargados de una o dos asignaturas
- Alumnos que deben cursar dos asignatura de libre elección.

**Plazo:**
11-11-2005

Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea